



Ihesi

Euskal Herria ezagutzuz

**TESTUA ETA ARGAZKIAK:
ITZIAR MADINA**

Mila metroko garaieran dauden belardiak zapaltzera goaz. Neolitiko garaitik artzainek erabilitakoak. Industriguneetatik urrun, Atlantiko Itsasotik Pirinioko gailur gorenaren parean egonik, zer ote du Erdizagak, Baztango hazienden bazkaleku otzanak, mehatxatua izateko? Bada, bere barruan oso preziatua den ekai, industriak adreilu errefraktarioetan nola ere laborantzak ongarrietan baliatzen dutena: magnesita. Hori dela eta, Erdizagan magnesita harrobia zulatu nahi luke Magna multinazional frantses-greziarrak, ezen Olazar errekatik behera segituz Artesiagako lepotik zazpi kilometrotan, Eugiko herrian, ia mende erdiz sakon eta zabal ausiki duen beste magnesita harrobia agortzera baitoakio. Erdizagan gaindi pasatzeak merezi du bi arrazoiengatik: dagoenaz ohartzeko, eta gal daitekeenaz jabetzeko. Ez dezagun ukan erraterik "ez genekien".

Erdizaga, ingurune mehatxatua

Irurita (Bazan) eta Eugi (Esteribar) arteko NA-174 bidearen tontorra den Artesiagatik abiatuko gara Urkiaga helburu, Saioa mendi esan-guratsuari bizkar emanaz.

Erdizagako ilargi laurdena

Artesiagako Mendateare gainaldean den artzain-ttattola baten eskuinalde-tik pasatuz, xendra batetik goiti hasiko gara. Laster, bista lau haizetara hedatzea uzten gaituen ingurune berde amultsuan, Baztango alhapide komunal handienaren muinean izanen gara. Ikusten, belarra lohitsuaren gelditu diren behorren hatz-arrasto bustiak? Artesiagatik Bustalmorrora Gurutze Meakatik pasatuz mazelaz mazela, Erdizagako inguruneak osatzen duen ilargi laurdena ezagutuko dugu, Erdizagako erreka behe-re-aldean dugula. Ohar gaitezen Nafarroako mendiek duten berezitasunari: hegoaldera begira dagoen Erdizagako erreka Mediterraneora doa, Arga ibaia tarteko, Ipar isuriko bere haurri-de Artesiagako erreka berriz, Kantaurira, Bidasoaren bidez. Entzuten al duzue haien melodia oldartsua? Atzoko euriak zaintsu bilakatu ditu, eta uhandira heltzeko irrikaz daude biak ala biak.

Pausoz pauso, GR-12ari segika egingen dugu aitzinera. Artesiagan abiatu xendran gora hego-ekialdera joanen gara, Larrakarteko Lepoa Erdizagako mendate gorenetatik bata bazterrean utziz. Iparralderantz egingen dugu, pagadi baten ertzetik ibiliz, hesi batetik hurbil, Zaguako lepoa ere behe-retik agurtuz, eskuinean. Bide parte hau mal-kartsuena da.


Gurutze Meakara heldurik, Erdizagako ilargi laurdenaren bizkarrean izanen gara. Inguru erdiaren erdian, hots. Harri mutu eta goroldio idor, Gurutze Mea-

kan hiru trikuharri daude, bai eta tumulu bat ere, Burdinaren Arotik hona, lo. Ez ditzagun bada, iratzar. Pentsa dezagun ortzia bere kasko piramidalez kilikatzen duen Orhi mendiari so daudela, orduko jendeen sineskeren arabera. Eta preseski, ekialdera jarraiki-ko dugu, nahiz eta Gurutze Meakan hegora bihurtzen hasiko garen Oialegi-ko kaskora iristeko, lehenbizi xendra batetik eta gero traktore bidetik. Oiale-gik ere megalitiko arrastoak dauzka. Alabaina, lau ala bost mila urte k.a.tik jendeak erabiltzen hasitako eskualdean baikabiltza. Gure arbaso abeltzainek ordutik hona daukate mendiaren burua zuhaitzez garbitua, lehenbizi ardi- en, geroago zaldi eta behien belar- toki egiteaz nahituak. Dilin-dalan joa- rea lepoan, gaur egungo Erdizagan, Baztango bazkaleku handi-enean, mila bostehun abere buru entzun daitezke ekainaren lehena eta urriko elurtadak

artean. Geroko Erdizagak berriz, eresi- rik airatuko ote, batere?

Panpalin-xilintxa mututuko ote?


Eder eta kulunkari izanagatik, ez gaitza- la panpalinen soinuak desbidera. Ibila- diko azken partean sartzera goaz, izan ere Bustalmorrora ailegatzeko gutxi falta da. Eta ezin gal daiteke norabidea: bere burua maki-en aurka defendatzeko Francok jarraziti zituen bunkerren atzetik joatea aski da, hauek hegiz hegi tontorrari ezkondu- rik direla. Tarteka ehiza postuak ere badira, pase garaian pausarri- ra bidean diren usoen zain ego- ten diren ehizariz mukuru. Bustalmo- rron bidegurutzea atzemanen dugu: ezkerretara Baztan eta Aldudeko muga- tik iparrerantz Elizondora joan daiteke. Jakin, handik ez urrun iparreko noran- tzan Hargintzuko Harria (1.110 m) iragan eta Lohilurzeko Lepoan (1.120m) zutarria ikusgai dagoela. Gure aldetik,



2007ko martxoaren 25a



Erauntsi dorpea da Erdizagara jaustekotan dagoena. Erdiz Bizirik plataformak egindako fotomuntaketan –azpian– Magna enpresak bultzatutako harrobia eginen balitz inguruak izanen lukeen itxura ikusten ahal da.



eskuinera eginen dugu Kintoko oihan gizenetik Enekorriko kaskoan (1.185 m) barna iraganez, Urkiagara ateratzeko xedez. Esteribarko hegoaldeko isurira begirada zuzendurik noizbait, oihanaren artean begitanduko dugu mamiz husturiko mendi oso bat. Hori bera da Eugiko herrian Magna enpresak daukan magnesita-harrobia. Erdizagako ingurune belartsu eztiak oraindik xarmapean gaituela, daldar emalea den ikuspegi iragarlea da, benetan.

Ardi, behi eta behor gosetien, nekazari beharginen eta ibiltari ameslarien bil lekua, Erdizaga. Baina haize

bortitzak ufatzen du, zerua beltzu da eta etor litekeen ekaitzak ez du deus onik.

Bost urte dira Magna multinazionalak hozkatu nahi lukeela Erdizaga. Orduetik hona Baztango Udalarekin

Adio Olazar bazterreko xuxurlari.

Adio amuarraina, muxarra, muturluzea eta basakatua.

Adio tokiloaren mokokada hotsari

dago harremanetan, ea harrobia zabalteko baimena luzatzen dion. Honek ez du oraindik erantzun, baina udalak aberastasun komunalari erreparo gutxi egiten diola sinesturik, zenbait herritar beldurturik daude. Eta mobilizatzeraz deitu dute. Zergatik? Ez dutelako nahi puntatik punta oinez ibili dugun Erdizaga itxuraldatzerik, ez nekazarien gero hipotekaturik, ez ingurune biologiko babestuen desmasiarik... Hitza ez da gogorregia. Desmasia dago Magnaren proiektuaren ildoan.

Mikel Mugiro biologoak egin duen txostena argigarria da. Batetik, harrobiak interes handiko biziguneak hautsiko lituzke Erdizagan bertan. Honek mendiko landaretza berezia desagerraraziko luke, hala nola harkaitzetan hazten den nartzisoa edo belar tartea maite duen orkidea. Baita oihana utzi eta, Erdizagako belardietan bazkatzen ohi den oilagorra. Eta hildako abereen gorpuzkinez elikatzen diren hegaztiak, horietan ezagunena ugatza. Esku baten atzamarre-

tan zenbatzen ahal dira Pirinio osoan gelditzen diren ugatz-bikoteak.

Olazar erreka, 7km-ko urratua

Baina kaltea ez da Erdizagako alhapidera mugatzen. Artesiagako holtzako Olazar erreka ere zabalduko da. Izan ere magnesita ekaia Erdizagatik Esteribarrera eramateko, zazpi kilometroan estu-estu errekattoari itsatsirik doan NA-174 bidea zabaldu beharko dute. Horren ondorioz errekarari loturik bizi diren animaliak kalteturik aterako lirerateke, orobat. Harrobiaren aurkako baztandarrek Olazar erreka ertzeko pagoak moztu, harkaitzak zartatu eta gisakoak eginen direla ere badiote.

Adio beraz, Olazar bazterreko lasaitasunari, uraren xuxurlari. Adio, amuarrainaren hazleku eta erreserba genetikoa. Adio muxarra, muturluzea, basakatua, tritoi piriniarra, igela, eskulapio sugea ala suge lepokoduna. Adio betiko orain arte desagertutaz emandako tokilo bizkar-zuriaren mokokada hotsari. Olazar erreka funditzeak ez bazaituzte berehala kaxatzen, egunero pasatuko diren 240 kamioiek dute eginen, goiz edo berant bidea zeharkatzeraz saiatuko zaretean lehertuko zaituztetelako.

Erdiz Bizirik taldeak manifestazioa antolatu du Erdizaga babesteko heldu den martxoaren 24rako, larunbatarekin, arratsaldeko lauretan, Elizondon. ■

Euskal Herriko harrobi handiena

Magna multinazionalak 100 hektareako harrobi irekiaren proiektua dauka Erdizagan. Eginen balitz, Euskal Herriko handiena litzateke.

Erdizaga babestutako guneen sarea da, berez; Nafarroako, Europako ala Espainia eta Frantziaren arteko egituretatik sortutako babesguneak. Hala nola: Natura 2000 Sarea, Kontserbatze Bereziko Guneak (ZEC) eta "Aldudeko erreka-Linduxeko lepoa Txoriak gerizatze eskualdea" deituak.

Artesiaga eta Erdizaga artean kilometro bateko pista asfaltoz bete eta garraio handiko kamioientzat egokitua eginen da. Bestalde, harrobia ibilarazteko tentsio gorako argindar lerroa martxan jarriko da.